

ELA Aberri-Eguna

Euskaldunon Egunkaria, 1995-04-11: 2.

ELAko bazkide 1947an egin nintzen Caracasen. Euskal Herriko beste gauza asko bezala, atzerrian ezagutu nituen euskal munduko eragingarri sozio-politikoak. Kasu honetan, Bernardino Bilbao, sindikatu euskaldunaren sortzaileetako bat, nekazina bera; atzerrian nintzen arte eutsi zion kuotak kobratzeko lehendakaritza pisu hari. Urte asko gero honeratu nintzenean lotu nintzaion berriz ELAri, eta Lezo Urreiztietak gerra aurrekoak kontatu zizkidanean amorru haundiagoarekin, zeren eta jakin nuen nola itsasoko sindikatu espainolek diskriminatzen zituzten euskaldunak: untziak Bilbotik irten eta kaia espainolistara iristen zirenean, ELAko kideak lurreratu egiten zituzten. Orain ELA, eginda, lan ongi eta asko eginaz, sindikatu handiena, LAB bigarrena, eta aurten Aberri-Eguna elkarrekin ospatuko dute gainera. Bakoitzak badu bere ideologia: baina biak dira abertzale; eta ez dira ezkonduko, baina biak ospatuko dute Aberri-Eguna batera, aberri bera delako lotzen dituen. Hau ez dute ongi ikusi Ramon Jauregik eta Jaime Mayor Orejak, beti aingeru gisa eta elkarrekin ari batira gure demonioak salatzen. Baina haiek diferente izanik Espainian bat egiten badute gure aurka, zergatik ez dugu guk bat egingo Euskadin gure alde? Euskal politikoak baino argi eta zabalago dabiltz sindikalistak. Egia da, ausardia behar da hemen ere, Irlandan bezala.